

KASIÑO DONOSTIAN

— Kaissio Kasiño (1).
— Ola, Prantzi.
— Donostian izan omen zera.
— Bai; urasse ikusi naia banuan eta an izandu naiz.
— ¿Eta zer ikusi dezu?
— Gauz asko.
— ¿Zer da geien gustatu zaí-zuna ?
— Eztakit ba, bana arako Gaizkinua deitzen dioten eche urasse ere ezta charra.
— ¿Gaizkinua?
— Bai.
— ¿Zer eche da ori?
— Au kaiera bidean dagoan, Eliza dirurien eche eder bat.
— ¡Ai! Ori kasinua dezu.
— ¿Nerea ote da?
— ¿Nola?
— ¿Ni Kasiño naiz, ta ura kasinua hada.... baña, an jokoan egiten dala esanditate, eta orregatik esan nai det nik, Gaizkinua izango dala. lokoko echean gaizkinak izango dira beti.
— Eztezazula orrelakorik esan.
— ¿Zergatik ez?
— An andizkiak izaten dira,

Markes, Konde, Duke ta orretakoak.

— ¿Zer daukagu orrekin?
¿Oiek gaizkiñetatik libre al daude?
¿Prai Antoniok konjuroren bat egiñ al die?

— Utzi ditzagun kontu oiek eta esan zadazu.

— ¿Nundik nora ta nola jua ziñan kasinora?

— Donostiara eldu nintzarian, goizeko zortzirak ziran, eta esan nion nere buruari: «nuan meza bat entzutera».

— ¿Kasinora?

— Ez : Buenpastorren aditzea banuan eta aren billa nenbillen.

— ¿Eta gero?

— Eche aĩn ederra ikusi nuanian, urasse izango zala Buenpastor uste izan nuan.

— ¿Eta nork esan zizun zer zan?

— Atean zegon ondo jantzitako gizon bat zut-zutik, eta geldigeldi, eta santuren bat ote zan pentatsu nuan, baña mugitzen zala ikustean, ari galdetu nion;

— ¿Zer?

— Mezarik ote zegoan.

(1) Kasiano.

— ¿Euskeraz galdetu ziñon?
 — Ez; erderaz.
 — ¿Nola ordia?
 — Onelasse : oiguste aiskide; ora estamos aki misa?
 — Au ezta Eliza — erantzun zidan. Ikaraturik gelditu nintzan.
 — ¿Donostia baten euskera aditzean?
 — Ez.
 — ¿Gizon aiñ apaiña euskeraz mintzatzean?
 — Ezta.
 — ¿Zertaz ba?
 — Baserritar bat aiñ kaballero biurtu ta ikustean.
 — Baserritarra zan beraz.
 — Baserritar izandua.
 — ¿Aiñ apandua zegoan?
 — Bai, bai. Burutik oñetaraño begira egon nitaizon, eta... ¡arraiye-arraiya! . . . baña burutik piska bat arincho egon bear zuan.
 — ¿Zergatik ba?
 — Kristal beltzezko oñetako, brist-brist egiten ziotenak zeuzkan, eta etzerala kristalak esan zidan.
 — ¿Zer zirala ba?
 — Chabolak; nunbait oraindik ere baserriko gauzen batzuezaz oroitzen da.
 — Etzizun esango «Chabolak», baizik «Charolak».
 — Dana dala. Gure mendietako charatan ezta alako olik eta ez olgairik ikusten.
 — ¿Eta gañerakoan ondo jantzia zegoan?

— Oso ondo. Lepotik berako chartes andi bat, eskumuturretan urrezko chingolak (1) zituala urrezko iltzez gorputzari josita eta...
 — ¿Urrezkoiltzez gorputzari jositako chartesa?
 — Ala uste nuan, baña ez, nik iltze-burutzat neuzkanak sorileak (botoiak) zirala esan zidan.
 — ¿Ark esan al zizun kasinuan jokoan egilen zala?
 — Arhek berak.
 — ¿Eta zuk zer erantzun ziñon?
 — Musean banuala apizio apurcho bat, eta amar zentimo gorabera bazkalondoan juango nintzakiola.
 — ¿Zer esan zizun?
 — Amar milla peseta eramaten banituan ere enuala geiegi izango, eta amar milla duro eramantare ez.
 — ¿Eta zuk zer erantzun ziñon?
 — Zurkaizturik gelditu nintzan
 — «Amar milla duro kontatzealdera emango balizkidate ere, ezingo nituzte kontatu»— esan nion.
 — ¿Eta?
 — An gelditu zan solbardak jasota.
 — ¿Eta zu?
 — Meza entzuteko Eliza baten billa abiatu nintzan, bidean kantatuaz:
 Zu zera kasinua
 Eta ni Kasiño,
 Baña eztet izan nai
 Nik orko beziño.

(1) Chingola — Cinita (Lar.).

Kasiño det izena
Ta zuk kasinua,
Or maiz sartutzen banaiz
Oso Gaizki nua.

Nai duanak jokuan
Gogoz egin beza
Baña nik naiagodet
Entzutea Meza.

— ¿Meza entzun zenduan?

— Bai, bai; iru apaizekoa alajaiño, eta ala ere ordu hete igaro zuten.

— ¿Nola ba?

— ¡Nola! ¡nola!... Ba : jarri ta jaiki... igaro bear ordu bete. Gure Erreloriak ordu erdian ernaten du berak bakarrik.

— Meza kantatua izango zan, ¿é?

— Bai; ta kantatzalleak ere apai-zen antzekoak ziran; batian is-sildu, bestean orrua egiñ, ain laster boz bakarra, ain laster danak arrapataka eta nasteborrasteen; ura ta utsa etziran elkarren lotsa. Arék guziak baño geiago balio du, gure sakristauak berak bakarrik kantatzen duan Patrebonepotenten batek.

— ¿Eta organuak?

— Nik eztakit; baña alako chili-bitu-ots batzuek ere aditu nituan.

— ¿Eta zer iritzi diozu Donostia-ko jendeari?

— Guziak dirala, aditzea nuan bezela...

— ¿Zer?

— Jošemaritarrak.

